

Zazpi enpresaren diru-kontuak aztertu dituzte.

(Zazpiren kontuak; zazpi izan dira diru-kontuak aztertu dizkieten enpresak).

Zazpi enpresen diru-kontuak blokeatu dituzte.

(Aipatutako zazpien diru-kontuak).

Zenbait enpresaren jarduera eten dute.

(Zenbaiten jarduera; **zenbait** izan dira jarduera eten dieten enpresak).

*Zenbait enpresen jarduera eten dute.

(*Zenbait enpresak geldiarazi dituzte; *zenbaitak).

Enpresa hitzak berezkoa du bukaerako **-a**. Bokal hori berekin daramala erabiltzen da beti. (Salbu-eta mugatu pluralean, jakina: "**hiru enpresa**" + EN = "**hiru enpresen**"):

- *Enpresa ertaina, enpresa hori, enpresa bat, edozein enpresa, hainbat enpresa.*

Deklinatu ere, bokalez amaitutakoak bezala deklinatzen da *enpresa*, eta orobat **-a** berezkoa duten hitz guztiak:

Mugagabea: edozein, zenbait, hainbat

- Zenbait pertsonaren ustea da hori. (*Zenbait pertsonen).
- Eragin handia izan zuen haren pinturak gerraosteko hainbat poetarengan. (*Hainbat poetengan).

Mugagabea: hiru, zazpi, makina bat (*heg.*, *beh.*)...

- Berrehun pertsonak galdu dute bizia hondamendian.
- Makina bat pirata dabil Somaliako kostaldean.

Mugatu plurala: kontuan har bedi plurala sartzekotan erreferente jakina behar duela.

- Basterretxea, Sistiaga eta Ugarte mintzatu ziren ekitaldian. *Gaur* taldearen sorrera izan zuten hiru artistek hizpide.
- Zazpi probintzietako bertsolariak bildu ziren.

Zenbakiei bakarrik dagokie mugatu pluralaren aukera hori.

Hona beste adibide batzuk:

- Zenbait atletak lehiatzeari utziko diote Olinpiar Jokoak igarotakoan. (*Zenbait atletek).
 - Hainbat erakusketaren berri emango dizuegu orain. (*Hainbat erakusketen).
 - Produktu hori ez duzu edozein janari-dendatan salgai. (*Edozein dendetan).
-
- Hamabi arbolak fruitua eman dute; beste hiruk, ez.
 - Hamabi arbolek fruitua eman dute. (Iaz landatutakoek).

-z kasu-markak joera du mugagabeen zenbatzailerik gabeko izen-sintagmak eratzeko. Halako mugagabeek singularraren forma bera ageri dute **-a** berezkoa duten izenekin. Eta hortik dator oker asko:

● Lore**z** eta hostozko apaindur**az** margotutako jauregiak. (Eta ez ‘apaindur**ez**’).

● Zelul**az** osatuak dira gorputzeko ehunak.

(Eta ez ‘zelul**ez**’). (Ikus ‘zelula ugari**z**’, eta ez ‘zelula ugari**ez**’).

Kontuan hartu, bestalde, asko direla **-a** berezkoa duten hitzak.

-a berezkoaren erabileraz baduzu beste fitxa bat.

Hemen duzu esteka:

-a itsatsia eta hitz elkartuak (2006-10-19) [pps/](#) [pdf](#)